



Agoizko Udala auzoekin

Joan den urteko formatu bera erabili eta ahalik eta jende gehienaren partaidetza ahalbideratzeko asmoz, Agoizko udalak auzoetako bilerak antolatu zituen urriaren bukaeran. Horien bidez, herritarrek edozein zalantzari irtenbidea eman ahal izan zioten, auzoetan antzemandako arazoak eta eskaerak azaltzeaz eta herriko auzotarrek udalaren kudeaketa zuzen-zuzenean ezagutzeaz gain.

Aurten ere berrogeita hamar bat auzokidek parte hartu zuten bile-

ratan, eta honakoak izan dira gairik aipatuena: garbitasuna, trafikoa edota guztienak diren eremuen hobekuntza.

Auzoetako bilerak urtero egiten dira Agoizko auzokideen kezkek, iradokizunak edo kezak ezagutzeko. Parte hartzeko prozesu honen barne jasotako proposamenak aztertu eta hausnartu egiten dira, ahal den neurrian, dagokion udal arloko egitekoen zerrindari eranstea, eta ahal balitz, urteko

aurrekontuetan islatzeko.

Unai Lako alkatearen arabera, azken elkarretaratze horrekin "agoiztarren ardurak, kezak eta iradokizunak udaleko ordezkariari zuzenean helarazteko aukera eman nahi zaie auzotarrei. Udalarekin harremanetan egoteko dauden bideez gain, beste bat ere izan ditzaten. Auzotarrentzako aukera oso eraginkorra izan dela ikusi da, eta, noski, beharrezko ekimena Agoizko auzotarren parte hartzea sendotzeko".

EL IRATI, S.A.-ri buruzko erakusketaren balorazioa



Agoizko Udalak atsegin handiz eskaini die herrikoei EL IRATI S.A. enpresaren historia jasotzen duen erakusketa, eta horrek arrakasta handia izan du. Erakustaldia bukatu, entitateak eskerrak eman nahi dizkie abentura handi hau posible egin duten guztiei, eta esker onaren adierazpen hori, gainera, publiko egin nahi du.

Eskerrik asko azken urtean zehar prestaketan lan bikaina egin duten pertsoneri: maketa egileei; panelen diseinatzaileari; testuen eta horien itzulpenen egileei; tresnak, argaz-

kiak eta objektuak bildu dituztenei; josten, testigantzak ematen eta koordinatzen ibilitakoei...

Eskerrik asko komunikabideei, erakusketa ezagutzera emateagatik eta hari buruzko informazioa zehaztasun handiz emateagatik.

Mila esker Nafarroako Gobernuari, Bianako Printzea Institutuari, Nafarroako Museoari, Caja Navarra Fundazioari, Cederna-Garalur elkarteari bere inplikazioagatik; modu berean, gure esker ona Uxue Barkosi, María José Beaumonti

eta Mikel Aranbururi erakusketa bisitatzeko interesagatik. Eta gure esker ona eskualdeko udal, alkate eta zinegotziei ere.

1534 pertsona hurbildu dira erakustaldira; interes handia izan dute dutenak, bertan egindako galdera eta erakusitako jakin-minaren arabera.

Eta, noski, mila esker Domingo Elizondori, erakusketa hau inspiratu duen lantegia zaharraren bultzatzaileari.

Mila esker guztiei.

Juan Antxietaren erretaulak Nafarroan

“Juan ANTXIETA, erretaulak Nafarroan” ekimenaren egitaraua arrakasta handiz bukatu zen. Errenazimentuko artistak Tafallan, Agoitzen, Kasedan eta Añorben (egitasmoa antolatuta duten udalak) utzitako ondarea ezagutzera ematea zen helburua.

Agoitzen eta Kasedan Cederna Garalurrek koordinatu zuen Karekin Kulturarekin eta Tafallan eta Añorben erdialdeko bartzuergoak; Karekin Agoizko kultura eta emozioa kudeatzen duen enpresa izateaz gain, ideien lehiaketaren irabazle ere izan zen. Erretaula bakoitzaren azalpenerako 400 liburuxka argitaratu ziren elebitan eta kartelak ere bai. Agoizko Alfredo León izan zen egitasmo honen irudi grafikoaren arduraduna.

Bisitaldi gidatuak irailaren 30ean eta urriaren 7,14 eta 21ean izan ziren, África Flamarique Arte historialariaren eskutik, ezinezkoa izan zen jendearen eskaera guztiei sarbidea ematea. Beraz, Agoizko Udalak jendearen jakin-minari erantzun nahian bigarren bisitaldia antolatu zuen azaroaren 18an, aur-rekoaren egitarau bera erabiliz.



Parte hartu zuen jendearen aldetik jasotako iritziak oso onak dira, Juan Antxietaren inguruan jakin-mina erakutsi dute, eta bere artelanetan adituak. Azpimarratu eta aintzat hartu nahi izan dute ideia honen sustatzailea udaletxea izatea. Horretaz gain, eta belaunaldi berrientzako gehigarri modura, Karekin Kultura gida didaktiko bat lantzen ari da gai honen inguruan. Bi-nako Printzea erakundearentzako, aipatutako herrietako lehen hezkuntzako 5. mailako ikasleei zuzenduta, euskaraz eta gazteleraz. Bertako ikastetxei eskainiko zaie eta ikasleekin bisitak egingo dira hurbiletik eza-gutu eta bere arte-ondarea balioetsi dezaten.

106 krabelin, Oroimen Historikoaren alde

Pasa den urriaren 11n ospatu zen, Elon, Teilerian fusilatu eta hilobi komunean lurperatutako 106 pertsonen aldeko omenaldia. Eraildakoen artean Agoizko eta Longidako bizilagunak zeuden ere. Teileria Ahaztuak memoria elkarteak antolatu zuen ekitaldia, eta bertan egon ziren, besteak beste, Ana Olo, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Institutioekiko kontseilaria, Álvaro Baraibar (Bake eta Elkarbizitzako zuzendari nagusia) eta Josemi Gastón (Memoriako arduraduna). Agoizko Udalak ere ordezkari izan zuen, ekitaldira Unai Lako alkatea eta zenbait zinegotzi bertaratu zirelako.

Memoriaren aldeko herriko elkarteak eman zion hasiera ekitaldiari, agerpen bat irakurri. Taldeak Teileria eta bertan gertatutako sarras-



eta ezagutzera emateko lan egiten du, eta haren helburua da biktime horiekiko (Francoren faxismoaren biktimekiko bezala) egia, justizia eta ordaina lortzea. Ondoren, hildako familien testigantza lagarriak entzun ziren. Bukatutakoan, José Mari Esparza editoreak hitza hartu

eta fusilatutakoen izaera azpimarratu zuen: hildakoak zibilak eta langileak zirela azpimarratu zuen, eta orain egin ahal zaien omenaldirik handiena haien idealak defendatzea dela adierazi zuen. Teileria Ahaztuak taldeak antolatutako ekitaldiari bukaera emateko 106 krabelin jarri ziren sinbolikoki jarritako teila batzuen artean.

Oroimenaren inguruan estatuak nahiz Nafarroak duen arautegian ezarritakoari jarraikiz, Agoizko Udalak eta Eloko teilerian fusilatutakoen herrietako instituzioek hilibia dagoen lekua Oroimenaren Parkea bihurtu nahi dute. Errepidean monolito bat jartzeko Herri Lan Departamentuko baimena jasotzearen zain daude, hala nola lur-zatiaren jabea den CANASAre-naren zain.

Matazak indarkeria sexistaren kontra



2014an Astigarragan sortu zen “Harituz” Elkarteak da egitasmo honen sustatzailea. Beraz, emakume talde bat 3 bider 3zm.ko koadroak iruten hasi zen, bakoitzean gizon batek eraildako emakume bat irudikatuz. Sare sozialen bitartez laster zabaldu zen ekimena eta indarra hartu, berehala hasi ziren Europa Latinoamerika eta Tunisiatik emakumeek bidalitako lepokoak jasotzen. Lepoko hori, indarkeria sexistaren kontrako ikur bezala, zabaldu eta hasi egin behar zen. Hortaz, artilez egindako koloreetako zatitxoak gehitzeko asmotan, azken hilabeteetan elkarretaratze ezberdinak antolatu dira. Azkena joan den larunbatean, urriaren 21ean, izan zen Uhartan.

Klabean hausnartzen

Duela gutxi, Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Nafarroako Gobernuarekin batera, jardura ezberdinez osatutako programa bat sustatu du giza balio patriarkalak eta beren eragina itxuraldatu eta desnaturalizatzeko gure eguneroko bizitzan.

Hala, jendez gainezka zegoen kultur etxe batean, Agoitzek Pamela Palenciano-ren “Kolpeek bakarrik ez dute min ematen” bakarrik eta jarraian egon zen eztabaida ikusi eta entzuteko aukera izan zuen. Bere bikoteki-dearekin izan zuen eskarmentua aipatuta, pairatutako

Ekintza honen ezinbesteko helburua ikusgai izaten jarraitzea, sareak josten eta gizartea indarkeria sexista errotik kendu behar dela hitzemanaraziz. Uharteko Andre Mari elkarteak hartu zuen testigua eta Agoitzek ere ekimen honetan parte hartzeko prest agertu zen.

Azken hilabeteetan, SAREAn Agoitzek bi elkarretaratze antolatu zituen beraien lokaletan eta 30 pertsona inguru batu ziren Uhartera heldutako 4.000tik 26 metro artile iruteko.

Uhartan ospatutako eguna jai giroan eta aldarrikapez bete izan zen, elkarretaratze eta emozioz betetakoa, berdintasunezko eta eraso sexistarik gabeko gizartea lortzeko asmotan.



tratu txarrak eta jasandako abusuak, hausnarketa bat proposatu zuen patriarkatu honetan ditugun harremanen inguruan, eraikitzen eta sufritzen.

Aoseko elkarteak eta Lizoain-Arriasoitiko udala NUPeko irakasle eta ikertzaile den Ruth Iturbidek eskaintako sekulako hitzaldien agertokia izan ziren. Landutako gaiak: “Zer eragin du generoak gaur egun? Zaintzak adibide garbi bezala” eta “Ez printzerik, ez printzesarik. Utopia erromantikoa berriz hausnartu”.



“Nafarroa arrosa, SARAY-ren alde”

SARAYk, bularreko minbiziaren Nafarroako elkarteak, bere helburuen artean, bai gaixotasuna dutenak, eta bai honen etxeak adeitasun osoz laguntzeko asmoa du. Bere xedea osatzeko erakundeek jarduketaz baliatuko da, batez ere, gizakia eta osasunaren eremuan, gainera, osasun munduko titietako gaixotasun honetan profesionalak direnei laguntza eskainiz.

Urte guztian zehar ekintza eta jardunaldiak egiten dira, aurtengo “Nafarroa arrosazko SARAYren alde” deitu den bigarren lehiaketa izanik, eta herri-erakundeei, enpresei eta Nafarroako merkataritzari zuzendutakoa.



Lehiaketa honen helburua hau da: SARAYren alde erkidegoa arrosa

kolorez tindatu. Lehiaketa honetan mundu guztia gonbidatzen da, SARAYren irudiarekin lotutako osagai guztiak erabiliz, egoitza, etxe, erakusleho eta abar apaintzen.

Agoizko udalak deialdian parte hartuz, ekimen honekin bat egin du. Karekin Kultura enpresa izan da Udaletxearen aurrealdea txukuntzeko arduraduna. Horregatik ikusi ahal izan da bi astetan zehar Udala arrosaz jantzita, Agoizko herriak bularreko minbizia duten guztiei laguntasuna erakutsi nahi izan baitie.

Hemendik, Oibarko Eguneko Zentroa zoriendu nahi dugu II. Lehiaketa honetako irabazlea izan delako.

Aspacek Agoitzen duen Ecointegrako biltegia handituko du, BBVA sariari esker

Enpleguarentzako Aspace Nafarroa Elkarteak jaso zuen BBVA-ren Integra Sariako bederatzigarren edizioako irabazlea dela kreditatzen duen saria. Juana Zalba fundazioko presidentek jaso zuen saria Cristina de Parias BBVA Españako zuzendariaren eskutik. Ekitaldian egon ziren ere Uxue Barkos Nafarroako presidentea eta Unai Lako Agoizko alkatea.

150.000 euroekin esleitutako sari horrek entitatearen ibilbidea azpimarratu eta saritu nahi du, ezintasuna duten pertsonentzako enplegu jasagarria eta kalitatezkoa sortzeagatik, hala nola baztertzeko arriskuan dauden pertsonen integrazioaren alde aritzeagatik. Entitateak 257 langile ditu, eta horietako %91 ezintasunen bat dauka.

Cristina de Parias bisitatu zuen Ecointegrako planta eta biltegi berria. Sariako diruari esker lanpostu berriak sortuko dira eta aktibitatea %30ean igoko da.

Bestalde, Uxue Barkosek zoriendu zuen, Nafarroako Gobernuaren ize-nean, Aspace Nafarroa Fundazioa, merezitako saria jasotzeagatik, eta “lana edukitzea herritar guz-

tien eskubidea dela” azpimarratu zuen, “langabeziak ezintasunen bat duten pertsonen bortitzago pairatzen badute ere”.

Juana Zalbak hitzetan “azken hogeita hamar urteetan zehar gure entitateak egin duen ibilbidea saritzen da, alegia, ezintasuna duten pertsonak lan arloan integratzeko egin den ibilbidea”.



ICTUSa galarazteko jardunaldia Agoitzen

Freno al Ictus elkarteak, Industrial Navarra Fundazioarekin batera eta Agoizko Udala eta Nafarroako Gobernuak laguntzarekin, ICTUSari buruzko hitzaldi bat eman zuen herrian, gaixotasuna eta haren ondorioak galarazteko.

Tailerra ordu eta erdikoa izan zen, eta bertan familian edo lanean ICTUS egoera bat agertzen deanean, egunerokotasunean jarraitu ditzakegun ohiturak eta jarraibideak azaldu ziren.

Freno al ICTUS elkarteak asmo bakkarekin sortu zen: pertsonen etorkizuna hobetzea, bizitza estilo eta ohitura osasungarriak hedatzea, horiek baitira ICTUSari aurre egiteko tresna bakarra.

Gaur egun ICTUSa garaiz galarazi, diagnostika eta senda daiteke. Informazioa, ikusgarritasuna, diagnostiko goiztiarra eta garaiz ekitea dira gaixotasuna ekiditeko gakoak. ICTUS-en % 80a saihestu daitezke.



Etxeko Ospitaleratze zerbitzua eskualde gehiagoetara zabaldu da, eta horien artean Agoitzera

Nafarroako Ospitale Guneak (CHN) burutu du Etxeko Ospitaleratzearen (HaD) zabalpena Iruñerriko Osasun eskualde osora, eta, horren ondorioz, asistentzia eredu horrekin atentzioa eman ahalgo zaie dira eremuak 480.000 biztanleei.

Zerbitzua bultzatzeko zazpi mediku berri aritzen dira eta hamasei erizain. Horretaz gain, 10 renting ibilgailu berri jarri dira, desplazamenduetarako.

Zerbitzuaren azken zabalpenaren bidez, Nafarroako Ekialdea sartu da zerbitzuaren mapan. Ospitaleratze ekipu berri bat aktibatu da, zortzi erri zerbitzua emateko modukoa, Zangoza, Agoitz, Auritz, Zaraitzu eta Iزابako oinarriko osasun eskualdeetan bizi diren 22.000 pertsonen asistentzia emateko.

Etxeko Ospitaleratze ekipuak gaixoa bisitatzen du, aldian-aldian, eta etxean bertan egiten dituzten beharrezko diagnosi probak, analisiak, elektrokardiogramak edo oxigeno saturazioa, adibidez. Modu berean, prozedura terapeutikoak egiten dira: elikatze artifiziala, oxigenoterapia, sendaketa konplexuak eta odol-transfusioak, besteak beste, ospitalean eskaintzen den arreta, segurtasun eta berme guztiekin.

“Hitz egin dezagun doluari buruz” hitzaldia

Goizargi Elkarteak, dolua pasa ondorengo zenbait pertsonen inizatibari esker sortu zen taldeak, doluari buruzko hitzaldi interesgarri bat eman zuen. Elkarreko bi psikologok, Amaia Arozarena eta Nati Labairu, azaldu zuten maite dugun pertsona bat hiltzen deneko trantzeari nola egin aurre.

Aholku praktikoak, tresna eraginkorrak eta ekintza zehatzak, gure elkartearen oraindik tabua den gaiari aurre egiteko; horiek izan ziren Aurelio León aretoa gainezka egin zuen hitzaldiaren edukiak.




KLINa jardunaldiak Agoitzen

Agoizko kultur etxea Nafarroako klima-aldaketaren inguruko jardunaldietako lekua izan zen. Hala, Agoizko herriak irailean eta urrian "klinadebates" izenburupean antolatutako mintegi eta jardunaldiak jaso zituen Nafarroako Foru Erkidegoko beste 9 herrirekin batera; klima-aldaketaren bide-orriaren inguruan izan ziren, eta Foru Erkidegoak antolatuta.

Agoizko ekitaldia "Pirinioetako Klima-aldaketaren inguruan gauzatu zen, eta inguruko eta Agoizko ordezkariak gain, maila altuko adituak ere bildu ziren eztabaida interesgarria sortuz. Klima-aldaketak estrategia berriak eskatzen ditu Pirinioetarako, eta hala egiaztatu zuten teknikariek ingurumenaren gaineko eraginak eta ondorioak zeintzuk izan ahal diren ohartaraziz.

"Klinavarra" Nafarroako klima-aldaketaren bide-orriaren ibilbidearen zati bat da, eta 2016ko uda-

berrian Foru Erkidegoaren aginduz martxan jarri zen. Joan den ekainean aurkeztu zen dokumentuaren zirraborra, eta jardunaldi eta mintegi hauen ondoren, hurrengo hilabeteetan ekarpenak aztertu eta gero, behin betiko dokumentua landuko da lurraldeko ordezkariarekin batera egiaztatu ondoren. Foru Gobernuak abenduan dokumentua onestea aurreikusita dago, bertan Nafarroako Gobernuak klima-aldaketaren aurka borrokatzeko duen estrategia zehaztuko du.



Ondarea eta naturaren inguruko jardunaldiak

Ondarearen Europako Jardunaldien edizio berri bat antolatu zuen Nafarroak, egitaraua 132 ekintzez osaturik zegoen Nafarroako 58 herritan, tartean Agoitz. Nafarroako Gobernuak "Kultura Kirola eta Gazteria Departamentuak" antolatuta eta Europako Kontseiluak sustatutako hitzordua izan zen, horretaz gain, bertako udaletxeen laguntza ere jaso zuen.

Irati Errekaidorra Interpretazio ibilbidea egiteko aukera izan genuen Agoitzen, bere 8 kilometrotako ibilbidean ibaiaren bi aldeek bat egiten dute ekosistema ezberdinetatik zehar: urbazterreko basoa, labore zoroak, mendixkak... baita leku bitxi eta enblematikoak ere: izozkailua, San Romanen basiliza, Aserra-

dero auzoa... Parte hartze handia izan zen, nahiz eta eguraldiak ez lagundu, 30 bat pertsona hurbildu ziren.

Ondoren, Victor Manuel Egia Astibiak EL IRATI S.A. ren inguruko erakusketaren ikustaldi gidatua eskaini zigun. 80 lagun inguru hurbildu ziren Kultura-etxera erakusketa gozatzera eta azalpenak arretaz entzutera.

Jardunaldi hauek aukera aparta dira atea irekitzeko eskuarki helezinak diren Nafarroako ondasun eta guneak ikusteko, Nafarroako "ezkutuko" ondareak, azken finean. Aurtengo proposamenen artean: ibilaldiak, interpretazio ibilbideak, bisita gidatuak, tailerrak, mintzaldiak eta kontzertuak.



Irati Mankomunitatearen argazki lehiaketaren epaia eman da

Berriki HHS Irati Mankomunitateak II. Argazki Lehiaketako epaia eman du. Lanek 4 RRRRak bete behar zituzten: Repensar (berpentsatu), Reutilizar (berreraibili), Reducir (txikiagotu) eta Reciclar (birziklatu), eta

Mankomunitatea osatzen duten edozein udalerritakoak izan zitezkeen. Iaz bezala, egutegi bat argitaratu da lehiaketara aurkeztutako argazki guztiekin, laster postontziz postontzi banatuko dira.



1º "Las niñas y el tren"
José Luis De Andrés Hueso



2º "La merienda"
Leire Ekisoain Gorriñ



3º "Pitas pitas"
Alfredo León Mañú

Agoitz Hiria XII. argazki lehiaketa

Joan den irailean Agoitz Hiria hamabigarren argazki lehiaketako epaia eman zen. Aurten, aurreko urteetan bezala, epaimahaia honela osatu zen: argazkilaritzan adituak direnekin, kultura taldeetako ordezkariarekin eta Agoizko Udaleko partaideekin. Oinarrietan ezarritako irizpideei jarraituz, lan irabazleak aukeratu zituzten.

Hauexek: Ohiko modalitatean Javier Yárnoz, iruindarrak, 500€ko

saria irabazi zuen "Agoizko bazterrak" argazkiarekin.

Herri modalitateari dagokionez, urriaren 3, 4, 5 eta 6an zehar, aipatu epaimahaia aukeratu zituen hiru lanen artean bozkatu ahal izan zituzten herritarrek. Parte hartzeko zein bozka emateko behar den baldintza bakarra, Agoitzeko izatea zen. Edurne Mañú Aristu izan zen irabazlea, eta 300€ko saria jaso zuen "Agoitzen harrizko

galtzada bat dago" izenburupean aurkeztutako lanagatik.

Sari banaketa abenduaren 15ean, ostirala, arratsaldeko zazpitan, Agoizko kultura-etxeko Areto Nagusian. Erakusketaren barne, lehiaketan parte hartu duten lan guztiak bilduko dira eta abenduaren 12tik 27ra bitartean ikusgai egongo dira.



Modalitate Orokorra: "Rincones de Aoiz"
Javier Yárnoz Sánchez



Herritaren Saria: "En Aoiz hay una calle adoquinada"
Edurne Mañú Aristu

Urriko balantze kulturala

14ra arte "EL IRATI, S.A."ri buruzko erakusketa bisitatzeko aukera izan genuen, eta azaroaren 10etik 26ra arte ikusgai egongo da Eguesibarreko udalbatza-aretoan, eta urtea bukatzeko abenduaren 1etik urtaririlaren 8ra Nafarroako Artxibo Orokorrean. Aukera paregabea oraindik erakusketa arrakastatsu hau ikusi gabe duenarentzat.

Literaturak ere izan du lekua urrian.

Socorro Latasa Mirandak "Al filo del otoño" liburua aurkeztu zuen, poema-bilduma hau haiku japoniarrean jatorria duten poema laburrak dira; urtaroeekin lotura duten fenomenoak deskribatzen dituztenak, hiru zatitan egituratuta.

Juan Antxieta ere protagonista izan dugu hilabete honetan. Añorben, Agoitzen, Kasedan eta Tafallan antolatutako bisita gida-

tuak ikaragarriko arrakasta izan dute. Agoizko udalak azaroaren 18rako berriro deituko du.

Eta Bira-Bira programa, etxekoentzako antzerkia euskaraz, kultura-etxera heldu zen "Titirikontu Kontari" lana antzezteko. Ipuin kontalari eta txotxongiloekin ikusleek izugarri gozatu zuten.

Agoizko Mendi Lasterketaren II. Lehiaketa

Pasa den urrian Agoizko Mendi Lasterketaren II. Lehiaketa ospatu zen, Kanpondoak eta Angiluerrek antolatzen dute gure herriaren inguruetakoa mendietan barrena egiten den lasterketa hau. Egun ikaragarri ederra izan zen, bai ibilbideagatik, bai antolaketagatik eta baita jenderen parte hartzeagatik, gainera, eguraldia lagun. 100 bat lasterkari izango ziren proba bakoitzean; 13 kilometrokoa laburra eta 21ekoa luzea. Hainbat eta hainbat auzokide atera ziren igande goizean lasterketara, batez ere, laburrera.

Gainera, 100 lagun inguruk parte hartu zuen laguntzen eguna ezin hobea izan zedin; lasterketa prestatzen, lasterketa bitartean parte hartzaileak artatzen eta, azkenean, baita ibilbidearen garbiketa lanetan ere.



Ospatutako azken bi lehiaketetan, Agoitzek ahalegin guztia egin du mendiko lasterketa honek lekua izan dezan, lasterketez josita dagoen egutegian. Eta lortzen ari da. Ziur asko hurrengo ere oraingoa bezain arrakastatsua izango da. Eutsi goiari!

Bilaketa Txaranga, 20 urteko musikaldia Agoitzen



Patxi Goñik sortu zuen Bilaketa txaranga 1997. urtean, eta ordutik hona igarotako bi hamarkadetan taldeak soinu jarri du goitzen ospatutako hamaika ospakizunetan. Agoitzek gain, herri askotan entzun ahal izan dituzte taldearen melodiak, eta bizkarrean bi musikal eta bi diska ditu. Baina pasa den urriaren 28an bukaera eman zitzaion ibilbide luze eta arrakastatsu horri. Egun

hartan Agoitzek beste txaranga batzuk hartu zituen, egun ahaztezin batean, taldeko agurra galdu nahi ez baitzuten.

Egunari hasiera emateko, dianak entzun ziren, bi aldiz eten egin zirenak, merezitako bi omenaldi egiteko: bat M^a Socorro Lacunza, Patxi Goñi zenaren alargunari, eta bestea Juan Beroiz "Pesú", 2000. urteaz geroztik txarangako zuzendaria izandakoari. Ondoren harrera egin zitzaion Iraunkorrek (Tolosa), Igandea (Barañain) eta Irunberriko Txarangei, ospakizunearn parte hartzen hasi zirenei. Nafarroa Beherea plaza izan zen aitortza ekitaldia egiteko aukeratutako lekua. Agoizko Udalak parte hartu zuen ere, eta brodatutako 34 zapi banatu zituen aipatutako 20 urteetan zehar txarangako kide izandako guztiei. Zorionak!